

CELSO SÁNCHEZ CAPDEQUÍ

Celso Sánchez Capdequí Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak "kultura" kontzeptuaren azterketa izan zuen mintzagai *Castoriadis. Encrucijadas de la creación* mintegian.

NAUPeko irakasleak galdera batekin eman zion hasiera hitzaldiari: nolatan ematen da kultura gizakiarengan? Haren iritziz, kultura gertatzen da naturak gizakia amaitu gabe uzten duelako eta, ondorioz, gizakiari ezinezkoa zaiolako beti zabalik egote hori. Naturak behartzen du pertsona kaosa antolatzen, aukerak zein diren aztertzen, bat aukeratzera eta hura gauzatzera. "Castoriadis iritziz, kultura hastea da, gauzei ekitea, saioak egitea, ikertzea. Gizakiak bere burua kontatzea da kultura, hitzari ibilbidea eskaintzea aintzat hartuta hitza ez dela betiko, gerta litekeen zerbait baizik", esan zuen Sánchez Capdequí. Kultura, Castoriadis pentsamenduan, sorkuntzaren sinonimoa da, errealitatearen irudi berri bat; mundu berri bat asmatzea, entsegu kolektibo baten fruitu.



Sánchez Capdequíren iritziz kulturaren inimizio-nortasuna "berezia" da nolabait, kontzientzian edo pentsamenduan pentsatzen baitugu kultura, baina Castoriadisek dio kontzientzia ere sormena dela. Diskurtsoaren une batean dio ekintza bat pentsa daitekeela baita kontzientziarik gabe ere. Beraz, kontzientziak agintzen ez duen ekintza baten emaitza da argitasunera iristea. Ekintzaren hasieran, dio Castoriadisek, hizkuntza ari da errealitate berriak sortzen. Errealitatearen forma berriek irudimenezkoa dute iturri, hizkuntzaren oroipen-gaitasuna, "zerbait sartu da gugan eta indar egiten du; zergatik? Ez dakigu. Artistaren esperientzia horren adibide da. Hori kodifikatu gabearen lurraldea da, "hizkuntzaren izatea", laburtu zuen Sánchez Capdequí.

Bere azken ikerketetan, Celso Sánchez Capdequí artearen eta ekintzaren arteko zubien bila ibili da. Haren iritziz, artearen esperientzia adibide egokia izan daiteke irudimenezkoa eta hizkuntzaren maila metaforikoa ulertzeko, artistaren "ni" a sorkuntza prozesuaren garaikidea baita beti. Tesi honi indar emateko, filosofoak J. Valente poeta aipatu zuen. Valente dio artearen esperientzia ez dela existitzen "ni" an eta artistarengan gertatzen denak ez duela gidaririk.

Amaitzeko, kultura etengabe hastea eta hastea bada, errealitatea berriro kontatzeko saioa bada, desoreka handiko gizarte honetan hitz erabakigarri ez badago eta dena "izan"erako bidean badago, gizakiak modu korporatiboagoan sor dezakegu geure burua, zubiak eraikiz, sortzearen patua pertsona guztientzat komuna baita.